

Goizuetako toponimia, Artikutzakoa ezik*

LUIS FERNANDO ETXEBERRIA SALABERRIA

*Amatxo, Izeba Benita eta Inma,
neure maitiei.*

Oharra:

Nere eskerrik beroenak gure herriko lekuen izenak eman dizkidanenei; hona hemen beren izenak eta beraiekin egondako egunaren aipamena:

— Altamira Goizueta, Silvina. 64 urte	1986-08-20
— Alustiza Uria, Segundo. 67 urte	1987-04-16
— Apezetxea Zubieta, Jose A.	1986-09-29
— Apezetxea Zubieta, Silverio.	1987-09-29
— Aranburu Arribillaga, Jose. 63 urte.	1986-09-30
— Arozena Perurena, José M ^a .	1986-10-14
— Arribillaga Eskudero, Francisco. 64 urte.	1986-09-29
	1987-03-15
	1987-04-18
— Arribillaga Eskudero, Mikaela. 61 urte.	1986-09-29
— Eskudero Mitxelena, Jesus. 49 urte.	1986-08-22
— Eskudero Zubeldia, Jabier. 29 urte.	1986-10-04
— Eskudero Zubeldia, Antonio. 41 urte.	1986-10-14
	1986-11-01
— Eskudero Zubeldia, Milagros. 26 urte.	1986-10-14
— Etxeberria Huizi, M ^a Jesus.	1986-08-22
— Etxeberria Salaberria, José J. 31 urte.	
— Etxenike Huizi, Julián. 55 urte.	1987-04-25
— Etxenike Huizi, Mateo. 51 urte.	1986-10-13
— Goizueta Altamira, Agustín. 62 urte.	1986-10-29
— Goizueta Goizueta, Agustín. 54 urte.	1986-12-08
— Goizueta Perurena, Juan.	1987-03-19
— Huizi Salaberria, Juan Antonio. 72 urte.	1985-11-02
— Indakoetxea Salaberria, José Juan. 50 urte.	1985-10-15
— Indakoetxea Salaberria, Salvador.	1987-03-15

* Tesinaren zuzendaria: Fermin Leizaola Calvo jauna.

— Loiarde Arozena, Esteban. 62 urte.	1986-10-20
— Loiarde Eskudero, Jose M ^a . 20 urte.	1986-02-22
— Loiarde Loiarde, Francisco J. 60 urte.	1986-08-11
— Loiarde Mitxelena, Eusebia. 71 urte.	1986-10-14
— Loiarde Zubieta, Bautista. 76 urte.	1987-03-21
— Loiarde Zubieta, Venancio.	1987-03-28
— Makazaga Salaberria, Francisco. 83 urte.	1987-03-00
	1987-03-06
	1987-03-07
— Mitxelena Loiarde, Dolores. 74 urte.	1986-09-30
— Mitxelena Sagastibelza, Roman. 44 urte.	1987-01-11
— Narbarte Fagoaga, Jose M ^a . 81 urte.	1986-10-14
— Perurena Almandoz, Teresa. 50 urte.	1986-09-30
— Perurena Perurena, Francisco. 69 urte.	1986-08-20
— Sagastibelza Telletxea, Petra. 68 urte.	1986-10-09
— Salaberria Goizueta, Arantxa. 13 urte.	1987-01-24
— Salaberria Lujanbio, Lutxi. 56 urte.	
— Salaberria Salaberria, Francisco. 61 urte.	1987-02-16
— Salaberria Salaberria, Lázaro. 54 urte.	1987-01-24
— Zubieta Apezetxea, Ramona. 86 urte.	1986-08-20
— Zubillaga Arrieta, Gertrudis. 83 urte.	1985-10-06
— Zubiri Narbarte, Cecilio. 77 urte.	1986-08-11
— Zubiri Nolashoyas, Vicente. 38 urte.	1986-09-29
— Narbarte Salaberria, M ^a Jesus. 19 urte.	1985-10-06

Sarrera

“*GOIZUETAKO TOPONIMIA, Artikutzakoa ezik*” izenburupean aurkezten dut Maixutza ikasketetarako hirugarren mailako tesina. Ikerketa hau egitea, nere herriko toponimiaz, LEIZAOLA-tar FERMIN-ek egiteko aholkatua, ez da arrazoi berezi edo nabarmen batetan oinarriturik egon, eta, ikuspuntu honetatik, beste edozein lan egin nezakeen. Aztertu behar nuen gaiak baldintza hauek bete behar zituen:

- Gure herriko aztergai izatea; Goizuetakoa, beraz.
- Giza zientziekin edo beren inguruko zientziekin zerikusirik edukitzea.
- Azterketa berria edo gutxi ukitutakoa izatea; beraz, ikerketa lana egin behar izatea.

“*GOIZUETAKO TOPONIMIA, Artikutzakoa ezik*” lanak, hiru baldintza hauek betetzen zituen; Goizuetakoa zen, Giza Zientzi lana kontsidera nezakeen, eta, DON VICENTE HERNANDORENA-k “Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra” 28. zenbakian aurkeztutako “Goizueta’ko Etxe eta Baserrien Izenak: 1616-1925’ño” lana ezik¹, honelako beste lanik ez zegoen. Horrela izanik, aurrera egin nuen, eta hementxe duzue nik egindakoa.

Hona hemen Goizuetako lurraldearen ezaugarri fisiko orokor batzu:

— Goizuetako lurraldea Nafarroako Kantauri Itsasorako ur isurialdean dago. Iparraldetik Gipuzkoako Errenderi eta Oiartzunekin eta Nafarroako Lesaka eta Aranorekin mugatzen du; Hegoaldetik Nafarroako Zubieta, Labaien, Erasun, Ezkurra eta Leitzarekin; Sortaldetik Nafarroako Arantzarekin eta, Mendebaldetik, Gipuzkoako Berastegirekin.

— Goizuetako lurraldearen luze zabala, Artikutza kenduz, 5.477 hektareakoa da.

— Geologikoki, Goizuetako lurraldeak Bortzerrietako Mazizo Paleoziarrekoak dira: mendi gain leunak eta haran estu eta sakonak.

— Nafarroako toki euritsuenean dago, Nafarroako Ipar Mendebaldean hain zuzen.


— Bere hotzberoeren gorabeherak Kantauri Itsasoaren eraginez bigunduta daude.

— Ez du udarako agorraldi nabarmenik pairatzen.

— Hormarik gabeko egunak, mendietan ezik, 200-230 izaten dira.

— Klimari dagokionez, Nafarroa hezeenean kokaturik dago.

— Iparmendebaldeko Nafarroa hezea, landaretzari dagokionez, Eurosiberiar lurraldeen Atlantiar probintziari dagokio. Bere zuhaitzik ezaugarrienak aritza, pegoa eta gaztainondoa dira eta, hauekin batera, zumarrak, ezkiak, urritzak, lizarrak, etab. Baita ere, ariztien hondamenez, añarrak, oteak eta iratzeak. Azkeneko hamarkadetan, papergintzaren eraginez batez ere, Goizuetako lurraldeetan nagusitu zaigun zuhaitz espeziea pinus insignis-ena izan da, aurretik aipatutako zuhaitzen hedapena arrunten murriztu delarik.



Goizuetako giza geografari dagozkion ezaugarri orokor batzu:

— Iparraldeko Nafarroari dagokion bezala, Goizueta Nafarroa ohiandar eta abeltzatiarrean dago; artzaiak, txundargileak, eta olagizonak batez ere, izan dira basoetaz baliatu direnak gizaldietan zehar.

— Lur pribatuak, jabe dutenak, banatuta daude eta tikiak dira.


— Kantauri Itsasora urak ixurtzen dituzten beste lurraldeen modura, Goizuetako etxeetatik batzu herrian bilduta eta besteak mendian sakabanaturik agertzen zaizkigu. Baserri askoren izenek “borda” izan zirela adierazten digute, hots, aberleku giza bizileku baina lehen.

— Industri prozesuak baserrien hustutzea eragin du, baserritarrek herrira edo industri lekuetara jo dutelarik, Leitza edo Gipuzkoa aldera.

Goizuetako lurraldeari buruz apunte historiko batzu emango ditut labor labor; honetarako, *HERNANDORENA*’tar *BIXENTE* Jaunak 1981 ko irailaren 1.ean zabaldu zuen idazkiak baliatuko naiz².

— “Goizueta eta Arano’ko lurralde guzi hau, aspaldi-aspalditik, “Anizlarre” izenez ezagutua izan da.

— “Anizlarreko puska haundiak, aspalditik, *ORREAGA*’ko Elizari eta hango Gaixo-etxeari eskeiñiak izan ziren (“Iglesia y Hospital de Roncesvalles” izendatuari); bañan 1468’an, *NAPARROAN* Erregiña zegoen *LEONOR* izenekoak, Orreagari eman zion Anizlarre oso-osoa, hau da, *ARANO* eta *GOIZUETA*’ko lurralde guzia. Horrela jabetu zen Orreaga (Roncesvalles) gure alderdi honetaz. Eta, geroztik, Orreaga izan da Goizuetarren Nagusi. —Noiz



arte?— 1815'era arte. (Gogoan izan, ARANO eta GOIZUETA, asieran "herrialde bat" zena, 1630'ean "banatu" zirela).

— "Si adquirió Roncesvalles el dominio de Anizlarrea, fue sin perjuicio de los aprovechamientos que en ese Monte de su jurisdicción tenían los vecinos de Goizueta".

— Para utilizar Roncesvalles los montes adquiridos, tenía que proporcionar Ferrerías o Fábricas de construcción de hierro; y para esto, dio diferentes porciones o trozos de Anizlarrea "a censo enfiteútico";... pero sin perjuicio de los goces y aprovechamientos que los vecinos de Goizueta tenían en esas limitaciones, como en todo lo demás de Anizlarrea".

— "Esta comunión de derechos produjo "Pleitos y Cuestiones" entre las dos partes congozantes (Goizueta y Roncesvalles)".

— "Con el deseo de cortar de raíz esos pleitos, y evitar que se suscitasen en adelante, determinaron ambas partes congozantes dividir definitivamente

ese monte; y habiendo nombrado para ello personas comisionadas de su confianza, el 18 de octubre de 1815, se otorgó la Escritura de TRANSACCION y CONVENIOS, que confirmó y aprobó el Consejo Real de Navarra”.

— “Dijeron los comisionados nombrados que: “quedaban liquidados para siempre todos los pleitos, pretensiones y diferencias, pasados y pendientes; y que, siendo la causa de ellos la mezcla de derechos mutuos en Anizlarrea, hacían una separación o división de este monte, la cual debería determinarse con la línea (muga berria) que marcaron desde el alto de Irain (Loizate) hasta Unalbidegi, bajando de aquí a los puentes de Oronoz, y siguiendo el río hasta Berdabio; para que toda la parte derecha (Artikuza) quedase para Roncesvalles y toda la parte izquierda de esa muga, para los vecinos de Goizueta”.

Azkeneko puntu honetan aipatzen den ezker alde horretaz arduratu naiz toponimiako lan honetan.

Toponimiaren garrantzia

Herri bateko toponimia jasotzeak, mapan kokatzeak, sail desberdinetan banatzeak, oro har, toponimiaz jabetzeak, bere garrantzia badauka alderdi ezberdinetatik aztertuta. Goizuetako toponimiaz iharduntzeak toponimiaren interesgune hauek zabaldu dizkit:

— Interesgune linguistikoa:

- Historian zehar gure arbasoek beren bizilekuak izendatzeko sortu dituzten erlazioak (gauza-hizkuntza) nola gauzatu diren agertzen zaigu toponimiarren bidez.
- Toponimoen arteko konparaketa diakronikoa (denboraren zehar) eta sinkronikoa eginez, Goizuetako euskarak gordetzen dituen joera batzu ikus dezakegu.
- Gure lurraldearen orografia hain zaila izanik, lekuak izendatzeko hitzak ere ugari dira eta, alde honetatik, emari batzu ere jaso dezakegu.

— Interesgune geografikoa:

Toponimoek gure lurraldearen orografia, hidrografia, biogeografia eta gizakiaren bizimoduaren berri ematen digute, gertakizun guzti horien lekuko dira. Erlazio zuzena dago toponimia eta lurralde horretan azaltzen zaizkigun errealitateen artean, askotan eta askotan.

— Interesgune historikoa:

Toponimo eta errealitatearen arteko erlazioa ikusterraza baldin bada askotan, toponimoa izan daiteke, baita ere, gorderik dagoen zerbaiten seinale edo leku horretan aintzinako une batetan gertatutako zerbaiten adierazle. Toponimia, bere aldagaiztasunagatik, kontutan hartzeko moduko iturri historikoa da.

— **Interesgune kulturala:**

Toponimiaren gainean ikerketa lan bat egiteak inoiz baino interes handiagoa dauka gaur egun, kultura tradizionaletik teknologjikora igarotzerakoan. Toponimia jasotzea eta kokatzea premiazko eginkizunatzat har dezakegu, berandu baino lehen.

— **Interesgune estetiko:**

Denboraren zehar gure aurrekoek sortutako toponimia gaur eguneko gizakiarentzat erreferentzi bezala ere balio dezake bere izendatze berrietarako, eta honela, gure ingurunearen nortasuna errespetatu ere egingo dugu ikuspegi honetatik. Gure aurrekoek frogatu bait digute begien aurrekoa izendatzekoan ere arau batzu errespetatu behar direla.

Metodología

Lana hasi aurretik ez neukan definituta jarraitu behar nuen metodologia eta esperientzia izan da neurririk haundienean zein metodologiaz baliatu behar nintzen erakutsi didana.

Goizuetako Toponimiari buruzko lan hau, nola ez, jasotako toponimo bakoitzean oinarriturik dago. Toponimoak biltzeko iturri zuzenera jo dut, hots, hauzo desberdinetako baserritar eta artzaiei galdetu diet, eta, lekuek bertan ikusiz, Aranzadi Elkarteko Etnografi Departamentuak toponimoak jasotzeko egindako txartela gidak eskatzen zituen datuak bete ditut.

Hasiera batean nere lana honetara mugatu zen, toponimoak jasotzera, neure kuadernoan beren kokapena marraztuz, eta toponimo bakoitzarekin txartela bana betetzera, Aranzadiko txartela gida jarraituz.

Bitartean, baita ere, toponimiari buruzko lan batzu ere jaso nituen be-
raietik zerbait ikasiko nuelakotan, esate baterako:

— ALVAR, Manuel: "Toponimia del Alto Valle del Río Aragón"³.

— CIERBIDE MARTINENA, Ricardo: "Toponimia de la comarca de La Oliva"⁴.

Kokapen lanetarako behar izan ditudan mapak Nafarroako Foru Aldundiaren Kartografi Zerbitzuan erosi ditut.

Argazkigintza ere, hasieran ez banuen erabili ere, nere lanerako lagungarri bihurtu da denborarekin, eta bere laguntza gutxinaka gehiago eskertzen dut.

Sarreran argitu dudak bezala, ez naiz Artikutzako lurraldeetan sartu; saiatu naiz Artikutza ezik Goizuetako beste gainerako lurraldeak ahal nuen neurrian arakatzen eta, neure kontzientzirako, badakit lana seriozki eta zuzen egin dudala, bere akatsak, mugak eta zuzendubeharrak izango dituelakoz jabeturik egon arren.

Toponimo bildumarik haunditxoena egin ondoren, aurretik egitea pentsatzen ez nuen lan bati ekin diot: lanari forma edo itxura bat emateko ALVAR, Manuelen "Nombres de núcleos de población en el Alto Valle del Río Aragón" lanean aurkitu dudan eskemari jarraitzea erabaki nuen, neure toponimoen sailkapen bat eginez. Sailkapen honen berri aurrerago ikusiko duzue.

Adierazita azalduko da DON VICENTE HERNANDORENA-k bere "Goizuetako Etxe eta Baseri'en Izenak: 1616 urtetik-1925'ño" lanenan eskeinitako datuak neure lanean sartu ditudala baserri eta etxeei dagokien atalean.

Toponimoen sailkapena

Toponimoen sailkapena beharrezkoa zaigu toponimiaren garrantziaz jabetzeko. Aurretik adierazi dut toponimia zein alor desberdinetatik ikusita izan daitekeen interesgarri, hots, linguistika, geografia, historia, kultura, estetika. Toponimia hauetako edozein alderditik aztertzeke, sistematizazioa nahitana hiezkua egiten zaigu, eta, behar honi erantzun nahian, lehendik aipatutako MANUEL ALVAR-en lanera jo dut toponimia sailkatzeke erabili zuen hezurdura oso egokia iruditzen zitzaidalako. Biok aztertu ditugun lurraldeak, nahiz eta oso era ezberdinean, geomorfologikoki berdintsutzat har ditzakegu menditsu izateari dagokienean gutxienez. Nere sailkapena ez da MANUEL ALVAR-ena bezain sakona izango, ezta gutxiago ere, baina beste modu batetara aztertzeke materiale astuna izan zitekeena, atseginagoa suertatuko zai-gulakotan nago.

Sailkatzerakoan ez diot toponimo zehatz bakoitzari garrantzia ematen baik zik eta toponimo moietari. Honela askoz ere errazago egingo zaigu toponimoen sailkapena ulertzea, toponimo bakoitza bere motako beste gaineko guztiekin erlazioaturik agertuko zaigularik. Interesatzen zaiguna toponimo zehatz bat besterik ez bada, nahiko izango dugu toponimoen aurkibidera jo-tzea eta han aurkituko dugu berari buruz jakin nahi dugun guztia (klasea, kokapena...).

Hona hemen jarraitu behar dudan hezurdura:

a) GOIZUETA: herriaren izena.

b) TOPONIMIA.

1. Lurraldearen ezaugarri fisikoak.

1.1. Orografia.

1.1.1. Buru.

1.1.2. Gaña.

1.1.3. Kaxkoa.

1.1.4. Torrea.

1.1.5. Ttonttorroa.

1.1.6. Dunbullo.

1.1.7. Monttoa.

1.1.8. Muñoa.

1.1.9. Bixkarra.

- | | |
|----------------------------|---|
| 1.1.10. Egia. | 1.5.6. Soroa. |
| 1.1.11. Malda. | 1.5.7. Besteak. |
| 1.1.12. Malkorra. | 1.6. Bidea, Ataka, Estarta, Muga. |
| 1.1.13. Eutera-Elutsa. | 1.6.1. Bidea. |
| 1.1.14. Kopeta. | 1.6.2. Ataka. |
| 1.1.15. Lepoa. | 1.6.3. Estarta. |
| 1.1.16. Makoa. | 1.6.4. Muga. |
| 1.1.17. Mendi. | |
| 1.1.18. Ziarra. | |
| 1.2. Hidrografia. | 2. Lurraldearen bizi agerpideak. |
| 1.2.1. Itturri. | 2.1. Landareak. |
| 1.2.2. Aska. | 2.1.1. Zuhaitzak. |
| 1.2.3. Erreka. | 2.1.2. Zuhaixkak. |
| 1.2.4. Lintzira. | 2.2. Animaliak. |
| 1.2.5. Urgurutza. | 2.3. Gizakia. |
| 1.2.6. Zubia. | 2.3.1. Bizitzak: etxeak eta baserriak. |
| 1.2.7. Putzu. | 2.3.2. Artzai bizimodua: |
| 1.2.8. Presa. | 2.3.2.1. Belarsotoak. |
| 1.2.9. Ibaia. | 2.3.2.2. Bizitegiak. |
| 1.3. Zelaiak eta zokoak. | 2.3.2.2.1. Borda. |
| 1.3.1. Zelaia. | 2.3.2.2.2. Etxola. |
| 1.3.2. Zabala. | 2.3.2.2.3. Korralea. |
| 1.3.3. Zokoa. | 2.3.3. Nekazal bizimodua. |
| 1.4. Zuloak. | 2.3.3.1. Alorra. |
| 1.5. Lekuaren izatea. | 2.3.3.2. Kixulabea. |
| 1.5.1. Arri. | 2.3.4. Olak. |
| 1.5.2. Neurria edo itxura. | 2.3.5. Kontakizunak, sinismenak eta erlijioa. |
| 1.5.3. Kolorea. | 2.3.5.1. Gurutzeak. |
| 1.5.4. Denbora. | 2.3.5.2. Santuak. |
| 1.5.5. Orientazioa. | 2.3.5.3. Beste batzu. |

d) ANTROPONIMIA.

1. Izen bereziak.
2. Lanbideak.

Toponimoak, baserri eta etxeei dagozkienak ezik, informatzaileek ahaskatu dizkidaten bezalaxe idatzi ditut.

a) GOIZUETA: herriaren izena.

Don VICENTE HERNANDORENAREN hitzetan jarriko dut sarrera hau⁵.

“Goizueta herri hau, noizkoa ote da? Noiz bildu ote ziren gure aurrekoak errekalde hontara hemen elkarrekin bizitzeko? Orain arte dakigun Goizuetako aipamenik zaharrena, XIIgarren mende edo gizaldikoa da: 1188.koa.

Iruñako Eliz nagusiaren Altxategian (“Archivo” delakoan) gordetzen den liburu zaharrenetako batean⁶, hauxe esaten da: (latinez dakarrena, euskaraz ematen zaizue) “Iruñako Gotzaiak uzten dizkiola Laburdiko (Baionako) Gotzaiari, hau bizi den bitartean bere eskutik zaintzeko, hamar eliza edo kristau-herri hauek: Donostia, Hernani, Lavian, Zizurkil, Goizuvieta, Seiaz, Yziar, Iraurgi, Errexil eta Oiaz”. Horra hor aintziñako herri honen aipamena.

“Goizubieta” deitzen bazioten herri honi, zergatik ote zen? Urumea erre-kaz gora, hemen diren “zubi” hoiengatik?: Madalenako, Iberoko eta herri-bertako Zubiaundiagatik? Nork daki hori? Baliteke, bai, Goizueta hau aspal-diko “Goizubieta” izatea; baño, ezin esan garbi”.

b) TOPONIMIA.

1. Lurraldearen ezaugarri fisikoak.

1.1. Orografia.

Aipatuko ditut, lehendabizi, lurraldearen goieneko lekuak adierazten dituzten toponimo moetak:

1.1.1. BURU:

Alozarta burua, Alzanburu, Artzango itxaburua, Benaikobordaburuko zokoa, Burugorriko erreka, Elizburu, Illarbitako burua, Kaxparren bordaburuko bixkarra, Keseron bordaburua, Mendibilko burua, Olaburuko bixkarra, Ortzeiko itxaburu, Petxiburuko bidea, San Juan buru, San Pedroko burua, Txakurtxoko itturriko burua, Txamoraberriko bordaburua.

1.1.2. GAÑA:

Azeri zulotako gaña, Barrutiko gaña, Biamako, Gaintxabal, Gorosketa tiki, Ibalako arrin gaña, Usurbideko gaña, Xalpidetako gaña, Ixkibiko gaña, Lakendiko gaña, Putzutako gaña, Urriztiko gaña.

1.1.3. KAXKOA:

Altutako kaxkoa, Amonamozko kaxkoa, Aritz bakarreko kaxkoa, Arramaltako beko kaxkoa, Arramaltako kaxkoa, Baltsako kaxkoa, Baratzartako pagadiko kaxkoa, Bidaguruztako kaxkoa, Biribiltako kaxkoa, Deskargako kaxkoa, Erdiko egiko kaxkoa, Intxaurretako kaxkoa, Iraingo kaxkoa, Leuneta, Loitzate, Mitxelko kaxkoa, Mugarriko kaxkoa, Pagotako kaxkoa, Putzutako kaxkoa, Satorlepoko kaxkoa, Tartolako kaxkoa, Untzorrotz, Urganatoko kaxkoa, Urkatitako kaxkoa, Uzteroko kaxkoa, Zalku.

1.1.4. TORREA:

Auntzbizkarreko torrea, Torrea, Petrineko torrea.

1.1.5. TTONTTORROA:

Elorrieneko ttonttorroa, Gasparren bordako ttonttorroa, Suanbiluko ttonttorroa, Ttonttorreko belasoa, Txundarratoko ttonttorroa.

Hurrengo toponimo moeta hauek, nahiz eta goieneko lurren izenak ez adierazi beren inguruko beste lekuekiko garaia go daudenenak emango dizkigute:

1.1.6. DUNBULLO:

Dunbope, Dunbullo.

1.1.7. MONTTOA:

Monttoa, Bimunttuta, Munttu.

1.1.8. MUÑOA:

Atatabordako muñoa, Paskol armuñoa.

Eremu bat bi ixurkitan banatzen duen toponimo moeta, bi eratara agertzen zaigu esana:

1.1.9. BIXKARRA:

Altzateko bordako bixkarra, Aixpuru, Andreseleta, Arratakako bixkarra, Auntzbizkarra, Belakoko erletako bixkarra, Belen bixkarra, Berazkungo bixkarra, Bixtalekuko bixkarra, Bordatxuriko bixkarra, Deskantsuko bixkarra, Elorritako bixkarra, Erletako bixkarra, Erriko depositun bixkarra, Gaintzingo bixkarra, Iñaliko bixkarra, Itxortxako bixkarra, Karamaldiko bixkarra, Kaxparren bordaburuko bixkarra, Kurpitzetako bixkarra, Lorregiko bixkarra, Meaka, Mitxelko erletako bixkarra, Morroko bixkarra, Mugarriko bixkarra, Mus-trikuko bixkarra, Olaburuko bixkarra, Palotako bixkarra, Parapetako bixkarra, Postetako bixkarra, Tantailepoko bixkarra, Txareiko bixkarra, Ukuko bordako bixkarra, Untzatza.

1.1.10. EGIA:

Arango egia, Arlepoko ei, Arlepoko egia, Arregiko arrataka, Arregiko koskata, Artxutako egia, Aurreko egi, Auxonbordako egia, Berazako egia, Bixtalekuko egia, Bordatxoko bordako eia, Egiaundi, Egibeltza, Egiluxe, Egizorrotz, Eiaundiko elutsa, Ei aundiko eutera, Eitxiki, Erdiko egia (bi), Erdiko ei (bi), Etxolla, Gerezineko eia, Illasoko eia, Illasoroko eia, Itxikiko estarta, Itxortxako egia, Lakendiko eia, Makoko eia, Malkorrako eia, Mandoege, Martiñen iturriko eia, Meatxartako egia, Pago bakarreko egia, Pago bakarreko eia, Perelleko eia, Petximetako eia, Untzako eia, Urkitako eia, Ziarreko egia (Ziargia).

Toponimo moetak lurraren aldapari garrantzia ematen dionean, bi klase azaltzen zaizkigu: Malda eta malkorra.

1.1.11. MALDA:

Aontziko malda, Arralluta, Aurreko malda, Axixkolapeko malda, Beraza, Easporru, Erkarazko malda, Erletako malda, Erreka illuneko malda, Eskudero-ko iturriko malda, Idoiko malda, Illaluzetako malda, Iurtziko malda, Kurtedeko azpia, Larre erre, Larre luxe, Maldako erreka, Presako malda, Puñale-
neko arrobiko malda, Sansola, Tulturion malda, Txinon gurutzeko malda, Yauzpe, Zulotako malda.

1.1.12. MALKORRA:

Erebako malkorra, Malkor buru, Malkorrako eia, Malkorrako erreka, Mandamalkor, Nekuko malkorra.

Adierazten zaiguna, leku batek argitasunarekiko duen gaitasuna bada,

1.1.13. ELUTSA-EUTERA toponimo-moeten bidez emango zaigu:

Atson erreka eutera, Azkongatako elutsa, Ei aundiko elutsa, Ei aundi-

ko eutera, Elutsako estarta, Elutsako iralekua, Mustrikuko elutsa, Pastarriko elutsa, Urbitako elutsa.

Badaude zenbait toponimo-moeta metaforikoak suertatzen direnak, geomorfologiarekin zerikusterik ez duten gauzen formaren antzaz baliatzen direlako leku bat izendatzerakoan: kopeta, lepoa, makoa.

1.1.14. KOPETA:

Irauzko kopeta, Ostaziriko kopeta, Sarobeko ariztiko kopeta.

1.1.15. LEPOA:

Aierdiko lepoa, Arlepo, Arriurdiñetako lepoa, Arrobiko lepoa (bi), Atson erleko lepoa, Bi maiteko lepoa, Deskargako lepoa (bi), Enborretako lepoa, Erdiko lepoa, Errekalko, Ezazondo, Ezkaiztiko lepoa, Gaztaotz, Illarbitako lepoa, Kanale ttikiko lepoa, Lakotako lepoa, Lardilepo, Lepakeztu, Otezuritako lepoa, Pagotako lepoa, Portolon bordako lepoa, Satorlepo, Suatxiki, Subelepo, Subelepo ttiki, Tunel ttikiko lepoa, Ueko, Unalbideko lepoa, Urgarata, Urraideko lepoa, Usakietako lepoa, Xantuxko lepoa, Zarkintza.

1.1.16. MAKOA:

Argimutzuko makoa, Beletako makoa, Bordatxoko bordako makoa, Makinitzeko makoa, Makoko eia, Makoko presa, Okilliko makoa.

1.1.17. MENDI toponimo-moetaren adierazpen batzu:

Alduntzinmendi, Alkartasunako mendia, Karamendi, Mendibilko burua, Mendibilla, Mendi Urkullo.

1.1.18. ZIARRA gutxitan aurkitzen badugu ere, inoiz behinka azaltzen zaigu:

Urkineko ziarra, Ziargia (Ziarreko egia).

1.2. Hidrografia.

1.2.1. ITTURRI toponimo-moetaren erroarekin zerikustekorik duten toponimoak:

Agorriturri, Akolako itturria, Akola ttikiko itturria, Alkaxarrako itturria, Altzanburuko itturria, Altzeneko itturria, Andreseletako itturria, Añongo itturriko erreka, Ardatzipurdiko itturria, Arritxurritako itturria, Arxurritako itturria, Ataunen iralekuko itturria, Attaborroko itturria, Azpiko itturria, Biosoko itturrita, Biosoroko itturria, Bixtalekuko itturria, Bordaberriko itturria, Danbolin itturria, Deskargako itturria, Domiñako itturria, Enekolorriko itturria, Eskuderoko itturriko malda, Frutun itturria, Gaztaozko itturria, Goidobordako itturria, Goiko erreka itturria, Goiko itturria, Illabolinbordako itturria, Iraingo itturria, Istillako itturria, Itturraundi, Itturri aundiko zokoa, Itturriko erreka, Itturriko txabalako erreka, Itturri otx, Itturrita, Itturri xabala, Itturri xar, Itturri xarra, Itxurtxo, Ixaken barrutiko itturria, Kapelorrriko itturria, Karasuko itturria, Kargalekuko itturria, Kaxtabideko itturria, Korroxkako itturria, Kulon itturria, Lantxeneko itturria, Larrizko bordako itturria, Latsako itturria, Maingeneko itturria, Maixubordako itturria, Mantxintxako itturria, Maxupiltako itturria, Mendibilko itturria, Mitxelko itturria, Morriko itturria, Okilliko itturria, Oxen itturria, Portoloko xabaleko itturria, Puñale-neko itturria, San Pedroko itturria, Txakurtxoko itturria, Txaolatxarreko itturria, Txingurreneko itturria, Ukuko bordako itturria, Untzako itturria,

Urrizpiko iturria, Uzteroko iturria, Xantun iturria, Zentenon iturria, Ziolan iturria.

1.2.2. ASKA:

Nahiz eta askak ugari izan, ez zaigu askotan azaltzen toponimo-moeta hau, "iturri" toponimo-moetaren izenpean estalirik gelditzen delako, iturri asko beren askarekin batera bait daude:

Askatakoerreka, Goikobordako aska.

1.2.3. ERREKA toponimo-moetarekin zerikusterik duten toponimoak:

Akiñolako erreka, Akolako erreka, Akola ttikiko erreka, Alduntzinbordako iturriko erreka, Alduntzinsoroko erreka, Altsuruko erreka, Altzateko erreka, Añarbeko erreka, Añixarreko erreka, Añongo iturriko erreka, Aranitturriko erreka, Arlepoko erreka, Arbeltzako erreka, Aritzelaiko erreka, Arlepoko erreka, Arnabartako erreka, Arri aundiko erreka, Arri nabarretako erreka, Arrixuritako erreka, Artzanetako erreka, Askatako erreka, Astigarran erreka, Atson erreka, Attarran gurutzeko erreka, Attonamiatzeko erreka, Auntzkarko zokoko erreka, Axixkolako erreka, Azkongatako erreka, Basakaundiko erreka, Beingetako erreka, Beko erreka, Benaiko bordako erreka, Berazpiko bordako erreka, Bi errekan erdia, Bordaberriko erreka, Braxilin zuloko erreka, Burningo erreka, Burugorriko erreka, Domiñazpiko erreka, Easporroko erreka, Egi aundiko erreka, Egibeltzeko erreka, Epeleko erreka, Erdigoiko erreka, Erreka aundi (bi), Erreka beltza, Erreka illuna, Erreka leorra (hiru), Erreka ttikia, Erreka txar, Errekaxoko, Erreron bordako erreka, Erroitxako erreka, Eskutsuloko erreka, Gaintzingo erreka, Gaztañeneko erreka, Gorostietako erreka, Iñaliko erreka, Iraingo erreka, Iriborko erreka, Isillasko erreka, Iturriko erreka, Iturriko txabalako erreka, Ixkibiko erreka xarra, Izotzelako erreka, Joakinen bordako erreka, Kaarritako erreka, Kapiotako erreka, Karasuko erreka, Kearritako erreka, Konejerako bordazarreko erreka, Kontrako erreka, Kuxingo erreka, Labaingo erreka, Lardilepoko auzko erreka, Latxako erreka, Leotitako erreka, Lepotxoko erreka, Lintziretako erreka, Lizarreko erreka, Lorreiko erreka, Losoko erreka, Lozaingo erreka, Makarringo erreka, Maldako erreka, Malkorako erreka, Markiko erreka, Martizpiko erreka, Morriko erreka, Moxpelako erreka, Nekuko erreka, Okarreko erreka, Olazartiko erreka, Ollateiko erreka, Ontsariko belasoko erreka, Ostaziriko erreka, Otxberoko erreka, Pagotako erreka, Pagotako bordako erreka, Patarrako erreka, Pattanmorroko erreka, Pottoko erreka, San Antongo erreka, San Pedroko erreka, Tantaletako erreka, Tantailepoko erreka, Tartatxoloko erreka, Tartazuko erreka, Tomasen bordako erreka, Tronpatako erreka, Txamorako erreka, Txemeneko bordako erreka, Uarringo erreka aundia, Uarringo erreka ttikia, Uarringo olazarreko erreka, Udiko erreka, Untzaundiko erreka, Urbietako erreka, Urdiñolako erreka, Usurbideko erreka, Xaxizelaiko erreka, Xorton erreka, Xubixarreko erreka, Zerratiko erreka, Zimizketako erreka, Zimizketa zarrako erreka, Zorrotzongainko errekatxarra, Zulotako erreka, Zumarretako erreka.

1.2.4. LINTZIRA:

Urbidea erreka adineko gauza ez denean, ur negarra besterik ez denean, honela izendatzen da. Bertatik edateko adina ur ez da izaten eta, batzutan, bideak gaineztatuz, ibiltzeko leku irriztalariak eratzen ditu:

Arrondoko lintzira, Lintziraundi, Lintzireta, Lintziretako erreka, Lintziritza, Otxokiko belasoko lintzira, Trupiko lintzura.

1.2.5. URGURUTZA:

Bi errekaen urak elkar egiten duten lekua: Nekuko urgurutza, Subaleku, Urbitako urgurutza.

1.2.6. ZUBIA:

Aranolako zubia, Arranbideko zubia, Arrobiko zubia, Artxubitako zubia, Artzeiko zubia, Azpiko atakatako zubia, Biutako zubia, Eleungo zubia, Erre-
neko txolako zubia, Iberoko zubia, Iraingo zubia, Izko zubia, Markiko xubixarra, Makatzen zubia, Maleneko zubia, Nekuko zubia, Olaberriko zubia, Olatxoko zubia, Olazartiko zubia, Ontzubitako ataka, San Juan buruko zubia, Uatakako zubia, Urraideko lepoko zubia, Xubixarra, Xubixarreko erreka, Zubi aundia.

1.2.7. PUTZU:

Toponimo-moeta honen izenpean azaltzen zaizkigu mendi gainetako zokogune heze eta ihitsuak:

Putzuta, Putzutako gaña.

Beste batzutan ordea, ez dira aipatutako ezaugarriak betetzen:

Atton putxu, Kanoniputzu.

1.2.8. PRESA:

Ikatzolako presa, Makoko presa, Presa, Presako malda, Presaxar.

1.2.9. IBAI:

Irauzko ibaieta (eskrituretan), Ibaia.

1.3. ZELAIK eta ZOKOAK:

1.3.1. ZELAIA:

Alormuturrako zelaia, Altzateko zelai, Ametzelai, Añixarreko zelaia, Aran-
olako zelaia, Aritz xelaiko erreka, Arxuritako zelaia, Arzelaita, Azkongatako
zelaia, Domiñen zelaia, Elordiko zelaia, Frantxiselai, Galleikarreko zelaia, Gu-
riko zelaia, Idoiko zelaia, Iralikuko zelaia, Irauzko zelaia, Ixkibi, Karasuko ze-
laia, Klaudion iralikuko zelaia, Mandui azpiko zelai, Moortxelai (bi), Osta-
zuriko zelaia, Pattaran zelaia, Petrineko aritzetako zelaia, Portoloko xabala,
Prestetako zelaia, Tartolako zelaia, Telleiko zelaia, Uarringo zelaia, Udi, Un-
tatzako zelaia, Urgaratako zelaia, Urkatitako zelaia, Xaxizelaiko erreka, Yau-
zako zelaia, Zalkuko zelaia.

1.3.2. ZABALA:

Añongo iturriko txabala, Berazako txabala, Bidazabala, Domiñan txaba-
la, Elorritako txabala, Gaintxabal, Inttotzako zabala, Itturriko txabalako erre-
ka, Larra zabal, Larrazabal, Portoloko xabala, Portolon xabala, Sasi zabala,
Uku zabal, Urritzabal, Zabal aundi.

1.3.3. ZOKOA:

Alkazitako zokoa, Altsuko zokoa, Altsuruko zokoa, Altzako xokoa, Al-
tzanburuko lizartako txokoa, Altzatako zokoa, Añonarrakata, Arbeltzako xo-
koa, Argaratako txokoa, Aritxoko, Arzulo, Aspoko zokoa, Atabalarriko zo-
koa, Atson gurutzeko zokoa, Auntzkarko zokoa, Auntzkarko zokoko erreka,
Benaiko bordaburuko zokoa, Bidagurutako txokoa, Bordatxuriko xokoa, Bor-
daxarko zokoa, Eiaundiko xokoa, Enekolorriko bordapeko zokoa, Erdikartzu-
lo, Erletako txokoa, Errekatzoko, Gaztain txoko, Gaztain xoko, Gaztañamo-
tzako zokoa, Gerezineko zokoa, Gorostingo xokoa, Gorreneko zokoa, Guriko

zokoa, Ibalako zokoa, Iñaliko zokoa, Itturri aundiko zokoa, Itxurtxo, Ixaken gaztañiko zokoa, Kapelorrin zokoa, Kapoten gaztañeriko zokoa, Kastel santuko zokoa, Larratako txokoa, Larre erreko txokoa, Lizarretako txokoa, Lizartako txokoa, Loi lekuko txokoa, Meakako egiko zokoa, Meta aundiko zokoa, Miatxatako txokoa, Moxpela, Mugarriko zokoa, Orbeldiko zokoa, Pagadiko zokoa, Pago beltzako zokoa, Plantetako txokoa, Prestetako xokoa, Tartolako zokoa, Txamoraberriko bordako txokoa, Txingurreneko xokoa, Untzandiko zokoa, Zoko epel.

1.4. ZULOAK:

Arzulo, Arkaitzako zuloa, Aspoko zoloa, Azeri zulotako gaña, Biatzuma-ko zuloa, Braxilin zuloa, Domiñazpiko barrutiko zuloa, Erdikartzulo, Ezpondako zuloa, Gorreneko zuloa, Lakendiko meatxarta, Latsako minazuloa, Miatxarta, Miaztikozulo, Tintazulo, Txarpako zulota, Urkatitako minazuloa, Zulotako erreka, Zulotako malda.

1.5. Lekuaren izatea:

Leku bat nolakoa den adierazten diguten toponimo-moeta franko badaude:

1.5.1. ARRI izatea toponimo-klaseari dagokiten toponimoak, hiru talde-tan banatuko ditugu:

— Arria kokaturik non dagoen adierazten diguten toponimoak:

Aierdako arrik, Aldaiko arria, Alduntzinmendiko arxurita, Argaratako arria, Argaratako arri ttikia, Aritz bakarreko arria, Arkarazko arria, Arlepoko arrik, Arlepoko arri ttikia, Arnaartako erreka, Arrandiko arria, Arregiko arrataka, Arrobiko armaia, Arzango arria, Berazako arria, Billosoroko arkaitza, Biosoko arrik, Biutako zubiko arkaitza, Deskaarrieta, Deskargako arria, Gaintzinarri, Gorputxeko arria, Guriko arrik, Ibalako arrin gaña, Illarbitako arrik, Iribarko arria, Kuxingo bordako arria, Leotitako arrik, Mantxintxako bordako arria, Markiko arria, Maxupiltako arria, Porrostako arria, Tartazako arria, Telleiko arria, Urganariko arria, Urganaratako arrik, Usurbideko arria.

— Arria nolakoa den esaten diguten toponimoak:

- Kolorez:

Alduntzinmendiko arxurita, Arbeltza, Arnaarta, Arnabartako azpia, Arri-nabarreta, Arri nabarta, Arritxurritako erreka, Arriurdiñeta, Artxubitako zuba, Arxurritako itturria, Arxurritako zelaia.

- Neurritz edo itxuraz:

Argaratako arri ttikia, Arlepoko arri ttikia, Arri aundi, Arri Luxeta, Atton amonak, Urbedeinkatuuntzia.

— Arriarekin nolabaiteko erlazioa daukaten toponimoak:

Aizeik ez dun arria, Apezan arria, Argaratako txokoa, Argurutzako karakolata, Arkaitzako azpia, Arkaitzako zuloa, Arlepo, Arlepoko egia, Arlepoko ei, Arnabartako azpia, arratakako bixkarra, Arregiko koskata, Arri aundiko erreka, Arriko larraña, Arrinen belasoa, Arrinen kontra, Arrizirinda, Arrobia, Arrobiko lepoa (bi), Arrondoko lintzira, Arzelaita, Arzulo, Atabalarriko zokoa, Biutako zubiko arkaitza, Deskaarrieta, Ibalako arrin gaña, Kaarritako

eia, Kaarritako erreka, Paskol armuñoa, Pastarriko elutsa, Puñaleneko arrobi-ko malda, Titillan markaitza.

1.5.2. NEURRIA edo ITXURA adierazten diguten toponimoak:

Akola ttikiko itturria, Aritz aundi, basakaundiko erreka, Beatxikiko morria, Biribilta, Egi aundi, Egizorrotz, Egiluxe, Ei aundiko elutsa, bi aundiko eutera Ei aundiko xokoa, Eitxiki, Errataka aundi, Erreka aundi (bi), Erreka ttikia, Farolako borda ttikia, Gorosketa ttiki, Ibarla txiki, Iraliku aundi, Itturraundi, Larrazabal, Larre luxe, Larruta txiki, Larrutaundi, Lepakeztu, Lintziraundi, Mendibil, Mendibilla, Meta aundiko zokoa, Sasi zabala, Suatxiki, Subelepoko ttiki, Tunel ttikiko lepoa, Txoltxarko soroa, Txundarratako ttontorroa, Untzorrotz, Xoluxe, Ueko, Zabal aundi, Zubi aundia.

1.5.3. Zerbaiten KOLOREA ematen diguten toponimoak:

Bordatxuri, Burugorriko erreka, Egibeltza, Erreka beltza, Erreka illuna, Galarzuri, Otezuritako lepoa, Pago beltzako zokoa, Pagotxuri, Tantagorri.

1.5.4. DENBORA:

Alorxarra, Añixarreko erreka, Itturri xar, Bordaberri, Bordaxar, Itturri xar, Itturri xarra, Ixkibiko erreka xarra, Markiko xubixarra, Olazarta, Parexarta, Presaxar, Xubixarreko erreka.

1.5.5. Eguzkiarekiko ORIENTAZIOA: (Ikus 1.1.13. baita ere).
Moxpela, Zoko epel.

1.5.6. SOROA dela adierazten digutenak:

Aitasemegiko soroa, Alduntzinsoroko erreka, Arramaltako soroa, Atxikorreko soroa, Azpiko soro, Beazkaiko soroa, Belarsoko soroa, Benaiko soroa, Billosoro, Billosoroko arkaitza, Enekolorriko soroa, Espideko soroa, Gorgoriko etxolako soroa, Illasoko eia, Illasoroko eia, Iraurtza, Kinttaleku soroa, Lakendiko soroa, Lizaozko soroa, Mustrikuko soroa, Nekuko sarobea, Okalarra-ko soroa, Pelipe soro, Tartazuko soroa, Txaolatxarreko soroa, Txoltxarko soroa, Uzteroko soroa, Xoluxe.

1.5.7. Leku bat nolakoa den adierazten diguten BESTE toponimo BATZU:

Ataka gaixto, Borda errea, Bixtalekuko egia, Erreka leorra (bi), Erreka txar, Erreka txarra, Larre erre, Loi lekuko txokoa, Otsondon itxoltxarra, Otzberoko erreka, Pago mordoxka, Tulerion malda, Txolaerre, Entresakako tulubioa.

1.6. BIDEA, ATAKA, ESTARTA, MUGA:

1.6.1. BIDEA:

Arranbide, Astabideta, Bibideta, Bidaguruzta, Bidaguruztako txokoa, Bidazabala, Kaxtabideko ataka, Kuxingo bidaguruzta, Larre erreko bidamua, Lazkutzeko bidaguruzta, Losoko bidaguruzta, Mandabide, Mandabidetako borda, Petxiburuko bidea, Unalbideko lepoa, Usurbideko arria, Xalpidetako gaña, Zanga.

1.6.2. ATAKA:

Amonamotzeko ataka, Arratakako bixkarra, Arregiko arrataka, Arriurdiñetako ataka, Ataka gaixto, Atakata, Azpiko atakatako zubia, Errataka aundi, Iraingo ataka, Kaxtabideko ataka, Ontzubitako ataka.

1.6.3. ESTARTA:

Arrosamentako estarta, Elutsako estarta, Iberoko trintxera, Itxikiko estarta, Morrotzikiko estarta, Ortzeriko estarta, Santakruzko estarta, Xarxeketako estarta.

1.6.4. MUGA:

Irumuuta, Mugarriko bixkarra, Mugarriko kaxkoa, Mugarriko zokoa.

2. Lurraldearen bizi agerpideak.

2.1. Landareak: Tamainu edo neurriaren arabera sailkatuko ditut toponimo hauek.

2.1.1. Zuhaitzak:

